



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI OROKORRAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. FORU SOZietATE PUBLIKORAKO LAU LANPOSTUTARAKO AUKERATZE PROZESUA ARAUTUKO DUTENAK.

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA:

1.1. Deialdi honen xedea da Arabako Kalkulu Gunea AB - Centro de Cálculo de Álava S.A. foru sozietate publikorako (hemendik aurrera AKGSA) lau lanpostu hornitzeko aukeratze prozesua arautzea.

1.2. Sortuz doazen presako eta atzeratu ezineko beharrianak, ordezte beharrianekin bat datozenak, betetzeko dei egindako lanpostuak hauek dira:

- SAP ekonomia eta finantza aholkulari bi (deialdiaren kodea: 2019001).
- Giza baliabideen SAP aholkulari bi (deialdiaren kodea: 2019002).
- SAP sistemen aholkulari bat (deialdiaren kodea: 2019003).

Planteatzen da familia bizitza eta lan bizitza bateratzeko neurri multzo handi bat duen eta SAP Arabako foru sektore publikoan ezartzeko proiektu estrategiko sendo batean murgilduta dagoen enpresa publiko batean lan egitea.

Orientazio moduan, ordainsari gordinak urtean 43.000 euro dira.

Eskaintzen da plantillan sartzea, kontratu mugagabea egiteko aukerarekin, baldin eta momentu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko xedapenek ahalbideratzen badute, eta enpresaren beharrianen arabera.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEI ESKATZEN ZAIZKIEN BALDINTZAK:

Dagokion hautaketa prozesuan parte hartzeko, izangaiek baldintza hauek bete behar dituzte; baldintzak bete ezean, baztertuta geratuko dira:

I. BALDINTZA OROKORRAK

- A) Eskaera: Eskaera, I. eranskina eta II. eranskina betetzea, dokumentu horietan jasotzen diren eremu guztietan.
- B) Nazionalitatea: Indarrean den legediak inoren konturako lanpostuetan lan kontratuko enplegatu gisa aritzeko ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea. Atzerritarren kasuan, 8/2000 Lege Organikoak eskatzen dituen baimen guztiak eduki behar ditu (8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, atzerritarrek Espainian izango dituzten eskubide eta askatasunei eta haien integrazioari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa berritzekoa).
- C) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gaingitzea.
- D) Titulazioa: honako titulazio hauetako bat edukitzea edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana:
 - Goi-mailako ingeniari-tza
 - Lizentzia
 - Lanpostuarekin lotura daukan gradua gehi masterra, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen duenak (uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak emandako idazketaren arabera) aurreikusitako prozedura bidearen bitartez Unibertsitateen Kontseiluak egiaztatua.
- E) Gaitasun funtzionala: Ez izatea dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen osasun arazorik, hargatik eragotzi gabe 13/82 Legea, apirilaren 7koa, minusbaliatuen integrazio sozialari buruzkoa.
- F) Gaikuntza: Ez egotea epai bidez edo zerbitzuaren diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetako edo sektore publikoko enpresetako edozeinetatik bereizia edo aldi batez lanpostutik kendua, eta ez egotea ezgaiturik funtzio publikoak betetzeko.

Aurretik adierazi diren baldintza guztiak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira betetik, eta lan kontratua egiten den unera arte betetzen jarraitu, salbu eta "E" apartatuan aipatzen dena, zeina AKGSAk erabakitako Mediki Zerbitzuak ziurtatu beharko baitu kontratazio proposamena egin aurre-aurretik.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Pertsona ezinduak gainerako hautagaien baldintza berdinetan onartuko dira hautaketa probetan, baldin eta haien mugak iragarritako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo zereginak normaltasunez betetzearekin bateraezinak ez badira. Hautaprobetan, denbora eta baliabideak ahal bezainbeste egokituko dira, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute eskabidean.

II. BERARIAZKO BALDINTZAK

Hala badagokio, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Baldintzak (bai orokorrak, bai espezifikoak), inoiz ere ez dira balioetsiko merezimendu moduan.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAEREN AURKEZPENA:

3.1. Izangaiek ondoko agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdi bakoitzean zehazten den helbidera:

- **I. eranskina.**
- **II. eranskina**
- NANaren edo balio bereko nortasun agiri baten irudi eskaneatua.
- Izangaiaren curriculum vitae.
- Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.
- Bigarren oinarrian, baldintza orokorretan, D) apartatuan eskatutako titulu akademiko(ar)en irudi eskaneatua.
- **Baldintzak eta alegatutako merezimenduak frogatzen dituzten agiri guztiak.**

Dokumentazioa zuzenbidean onartua den edozein baliabidez justifikatuko da.

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 10ean bukatuko da, goizeko 11:59an.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

FORSELEC enpresa laguntzaileak hartu izanaren agiri bezala erantzuna bidaliko du, posta elektronikoz, eskaera bidali ondoko 48 ordu balioduneko epean, izangai bakoitzari eskaera kode desberdin bat helaraziz.

Kode hori aukeratze prozesuan zehar egiten diren argitalpenetan erabiliko da, izangaien nortasuna isilpean edukitzeko.

LAUGARREN OINARRIA.- IZANGAIEN ONARPENA:

Eskabideak eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea amaitutakoan, eta hura aztertu ondoren, pertsona onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitara emango da Forselec Gestión enpresaren web orrialdean (www.forselec.es) eta AKGSaren web orrialdean (www.ccasa.es), eta hiru egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik edo hutsegiterik izanez gero, haiek zuzendu edo konpondu ahal izateko.

Behin erreklamazio epea igarota, eta erreklamazioak ebatzita, pertsona onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, deialdiaren baldintzak ez betetzeko arrazoiarekin batera, argitara emango dira Forselec Gestión enpresaren web orrialdean (www.forselec.es) eta AKGSaren web orrialdean (www.ccasa.es).

Horretatik aparte, e-mail bat igorriko da informazio moduan pertsona izangaiek emandako posta elektronikoko helbidera.

POSTA ELEKTRONIKORA EGINDAKO JAKINARAZPENEN ABISUA:

Posta elektroniko bidezko abisua, hautapen prozesuaren urratsetako edozeinetan, informazio gisa izango da beti, eta inoiz ez da izango loteslea, zeren eta 39/2015 Legearen 41.6 artikulua arabera, "Jakinarazpena paperean egin nahiz bitarteko elektronikoz egin, administrazio publikoek abisua bidaliko dute interesdunak eman duen gailu elektronikora edo posta elektronikoko helbidera, eta, abisu horretan, adieraziko diote jakinarazpen bat eskura jarri diotela dagokion administrazio edo erakundearen egoitza elektronikoa edo eman duen helbide elektroniko bakarrean. Abisu hori ez emanagatik ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da".



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

BOSGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA

5.1. Orokorrean, deialdiaren eta aukeratze prozesuen inguruko iragarkien eta probetarako deien jakinarazpena (gutxienez probak baino 72 ordu lehenago egingo da), emaitzen argitalpena etab. ondoko bide hauetatik egingo dira:

- Web orrialdea: www.ccasa.es
- Forselec Gestión enpresaren web orrialdea: www.forselec.es

Lehenengo argitalpena baino lehenago, interesa duen pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio haren eskaerari emango zaion kodea. Kode horrek identifikatuko du aukeraketa prozesuan zehar egin beharreko argitalpenetan.

5.2. Puntuazioan kontratatuen ondoren dauden izangaiekin, AKGSAk hiru urteko iraupena izango duen lan poltsa bat sortuko du deialdi bakoitzeko, aldi baterako kontratazioetarako.

Aipatutako poltsa osatzeko, ez da kontuan edukiko elkarrizketan ateratako puntuazioa.

Hala lan poltsa eratzea nola hura kudeatzeko oinarriak AKGSAren web orrian emango dira argitara, behin hautaketa prozesua amaitutakoan.

SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Hautaketa probak amaitutakoan, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handienak lortu dituzten izangaien alde.

Hautagaien artean berdinketarik izanez gero, berdinketa desagiteko metodoa postu bakoitzerako oinarri espezifikoetan zehaztuko da.



Arabako kalkulua Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Hautagaiaren aukeraketa jakinarazi egingo zaio interesdunari, eta hark hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozesu horretan parte hartzeko oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituelako egiaztagiria:

- a. Eskatzen diren eta curriculumean aitortu diren ikasketak egin izana egiaztatzen duten titulazioen eta ziurtagirien kopia konpultsatua.

Proposatutako hautagaiak ez badu aurkeztu galdegiten zaion dokumentazioa, AKGSAk zerrendan gai izendatua izan den hurrengo hautagaia kontratatu ahal izango du, prozedurako azken puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

Kontratatzeko proposatutako hautagaiek, guztiek, sei hilabeteko probaldia egin beharko du.

Proposatutako hautagaiak ez badu gaintzen sei hilabeteko probaldia, AKGSAk aukeran izango du zerrendan gai izendatua izan den hurrengo hautagaia kontratatzea, prozedurako azken puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

7.1 Aukeraketa epaimahai bat eratuko da prozesu bakoitzerako, eta hartako kideak izendatzerakoan inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideei jarraituko zaie.

7.2. Ordenamendu juridikoarekin bat, aukeraketa epaimahaiak ebatziko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta hartuko ditu fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Baita ere, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

Epaimahai horretako kideren bat ezin agertua gertatuz gero, Sozietatearen kontseilari delegatuak edo zuzendari kudeatzaileak ordezkoa izendatuko du, beharrezkoa dela baderitzo. Nolanahi ere, epaimahaia hiru kidek osatuko dute, gutxienez.

Epaimahaiak probaldia ebaluatzeko batzorde bat izendatu ahal izango du, eta hark behatu beharko du laneratze prozesua, eta amaitutzat eman egokia izan dela joz gero. Osterantzean, txosten justifikagarri bat jaulki beharko du.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

7.3 Epaimahaiak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa berezituak parte har dezaten, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

7.4. Epaimahaiko kideek ezingo dute parte hartu hautaketa prozesuan, eta hala jakinarazi beharko diote deialdia egin duen agintaritzari, eta, bestalde, izangaiek errekusatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, baldin eta 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren inguruabarrak gertatzen badira (40/2015 Legea, urriaren 13koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena).

7.5 Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea. Epaimahaiaren erabaki guztiak bertaratutako kide guztien botoaren gehiengoarekin onetsiko dira, eta, boto kopuruan berdin gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebatziko du.

7.6. Epaimahaia osatzen duten pertsonen izen zerrenda eta behin betiko onartuak eta baztertuak izan diren izangaien zerrenda batera argitaratuko dira.

7.7. Epaimahaiko lehendakariak edo ordezkioak egoki deritzen neurriak ezarriko ditu, 1. faseko idatzizko ariketak izangaien nortasuna jakin gabe zuzen daitezzen.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legea) xedatutakoa betetzeko, jakinarazten diegu langileak aukeratzeko prozesu honetan parte hartzen dutenei ezen edozein arrazoiengatik ere beren parte-hartzearen ondorioz ematen dituzten datu pertsonalak sartuko direla Arabako Kalkulu Gunea S.Aren (AKGSA) eta Forselec Gestión-en (FORSELEC) tratamendu hauetan:

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKGSA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	AKGSAren Administrazio eta Giza Baliabide Sailaren arduraduna
Helburua	Zure datu pertsonalak helburu hauekin tratatuko ditu AKGSAk: • Aukeraketa prozesua egitea eta, hala dagokionean, langileen eta AKGSAren arteko lan harremanak kudeatzea. • AKGSAko parte-hartzaileen eta izangaien lan poltsak mantentzea.
Legitimazioa	Izenpetzen duenaren baimena
Hartzaileak	Ez dira lagako
Eskubideak	Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzea, baita informazio



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

	gehigarrikako dokumentuan jasotako beste eskubide batzuk ere.
Informazio gehigarria	Datuen babesaren inguruko informazio gehigarri eta zehatza kontsultatu dezakezu www.ccasa.es estekako "Lege informazioa->Datu pertsonalak" atalean.

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA FORSELEC-EN DATU BABESARI BURUZ

Arduraduna	FORSELEC GESTIÓN, SL (GRUPO LANAK), Gasteiz hiribidea, 62, 1.a, 6. bulegoa, 01012 Vitoria-Gasteiz, forselec@forselec.es .
Helburua	Zure datu pertsonalak helburu hauekin tratatuko ditu FORSELECek: • Langileak aukeratzeko oraingo eta geroko prozesuetan parte hartzea. Nortasun eta lan profilak egitea. Emandako erreferentziak egiaztatzea.
Legitimazioa	Hautagaia bere CV bidaltzean emandako baimena.
Hartzaileak	Langileak aukeratzeko prozesuetan haren zerbitzuez interesaturik dauden bezeroak.
Zaintza	Langileak aukeratzeko prozesuek irauten duten bitartean eta, horiek bukatutakoan, urtebetez, geroko aukeratze prozesuetarako.
Eskubideak	Eskubidea du edozein unetan bere baimena kentzeko, bai eta bere datuak eskuratzea, zuzentzea, deuseztatzea, aurka egitea, mugatzea eta eramatea eskatzeko ere, arduradunari zuzendutako idazki baten bidez, tratamendu zehatza eta erabili nahi duen eskubidea adieraziz. Enpresarekin desadostasunik izatekotan bere datuen tratamenduari buruz, erreklamazioa aurkez dezake Datuak Babesteko Agintaritzan (www.aepd.es).